


**Lanaldi partzialdun irakasleei inkesta****UPV/EHU**  
**Irakasle-ikertzaile  
partzialen  
esplotazioari, EZ!****<800 €/hilean  
eta lanorduz  
gainezka!** **LAB**

Irakasle partzial ugari jasaten ari den prekarizazioaz jabeturik, egoeraren diagnosi bat egiten ari gara LAB sindikatuan. Joan den ikasturtean egin genituen banakako galdeketen bidez jada atzeman ditugu Bitarteko Irakasle Kontratatu partzialak, batez beste, kontratuan ezartzen zaizuen ordu-kopuruaren bikoitza ari zaretela eskaintzen EHUri. Ezartzen zaizuen lan-zama ez dator bat zuen kontratuan agertzen diren klase- eta tutoretza-orduekin. Eta aitortzen eta ordaintzen ez zaizkizuen kudeaketa-lana, formakuntza-lana eta eskolen prestakuntza-lana egiten dituzue dohain. Telefonoz burutu ditugun galdeketen arabera, kontratu partziala duzuen gehiengo nagusiak ikerketa egiten duzue zuen ordu libreetan, geroago EHUn izenean ikerketak argitaratuz, EHUn karrera egiteko bide bakarra baituzue hau. Horregatik inkesta motz hau luzatzen dizuegu, EHUn **JARDUN PARTZIALEAN ZAUDETEN ORORI** (bai bitarteko kontratudunei bai elkartuei), zuen egoera zehatza zein den jakiteko. Zuen eskubideen alde borroka egiteko beharrezkoa dugu.

Inkestaren [LINKa](#):